


Herberehetako irekia irabazi dau Lur Ziarrustak

Euro1Wall Dutch Txapelketan Lur Ziarrusta pelotari dimoztarrak A mailako Banakako txapela irabazi dau, finalean Noah Daubechies belgiarrari 2-0 nagusitu ostean. Mikel Beldarrain arteztarrak be jokatu eban txapelketea eta finalurrekoetara heldu zan banakakoan zein binakakoan. Binakakoan, Ziarrustak eta Beldarrainek alkarregaz jokatu eben Ffächra Ó Dúill eta Jurrit Osinga txapelketako irabazleen kontra, baina galdu egin eben. **15. orrialdea**



Malu Egiluz Zisjordanian egon da LVC alkarreagaz

Zeanuriko Malu Egiluz, La Via Campesinako (LVC) ordezkari batzordeen Batasunak konbidautu, Naplusa, Jordan bailara, Ramalah, Belen eta Hebronon egon da hango base-errietaren egoeraren barri jakiten. Palestinako nekazarien eta landa komunitadaren bizibideak suntsitu ditu Israelek, etxebizitzak bota, lurrak konfiskatu eta ura eskuratzeko murrizketak ezarri. Jordaneko bailaran, konfiskatutako lurretan, mundu guztirako ekoizten dau Israelek eta mendebaldeko gobernuak baimentzen dabe hori, isiltasunagaz eta Israelegaz egindako merkataritza akordioakaz. **10. eta 11. orrialdeak**



Dana prest koplak kantetako



Koruz beteko dira zezeilaren 4an, Agate Deunaren bezperan, Arratiako herriak koplak kantatzeko eske errondeari ekiteko. Euren artean, Arratiako Korua egongo da, goizeko 08:25etik gauera 22:00ak arte, Arratia, inguruko herrietan eta Bilbon antxinako tradizioari eusten. Zeanuriko Santa Ageda ermitan ospakizunak egongo dira domeka bitan. **9. orrialdea**

ZEANURI

Artea neurtuko dabe Zeanurin San Balendin ospatuteko

Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenagaz ezetuten dan ermitaren inguruan, San Balendin egunaren hurrengo domekan, zezeilaren 16an, artea neurtuz eta kanpaiak eskuz joz ospatuko dabe eguna. Artearen igazko neurria 193 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran izan zan. **8. orrialdea**



AREATZA/BEDIA

Udal aurrekontuak onartu dabez Areatzan eta Bedian

Igaz baino diru gutxiago kudeatu beharko dabe udalek herri bietan. Areatzak 1.866.400 euroko aurrekontua onartu dau EH bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Bedia 1.749.621 eurokoa EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bildukoen abstentzioakaz. **6. eta 9. orrialdeak**



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

ARRATIA, UBIDE

la 7 milioi euroko aurrekontua onartu dau AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateak 6.935.267,37 euroko aurrekontua kudeatuko dau, 2024koa baino %3,2 handiagoa. Diru partida garrantzitsuak dagoz personeren babes eta arretarako: gizarte larrialdietarako laguntzak, etxez etxeko laguntza zerbitzurako, adikzinoen prebenziorako eta andra eta gizonen arteko aukera bardintasunerako, besteak beste. Bardintasun Zerbitzurako beste kontratazino bat egiteko konpromisoa be hartu da, zerbitzuak hori behar izan ezker. Uri hondakin solidoak batzeako eta tratetako da aurrekontuaren %22a. **7. orrialdea**

Literatura txokoa

LEHENDAKARIAREN ALABA/BOTERE HANDI BATEK

Euskal politika erroz aldatu da pentsaezinak ziran adierazpen, jarra, itun eta enparauak ahalbidetuz. Honek islada izan dau kulturaren eta ondorioz, literaturan be bai. Lehendik be ugariak izan dira gatazkearen inguruan idatzitako testuak, baina oingoan, beste modu batez lan-tzean hasi da, ikuspegi barriz. Egia da baegozala politika fikzioa lez etiketutako eleberririk eta komikiak, oin, haatik, irudipena da libreago idazten dabilela jentea. Esaterako, gaur dakar-tuedazan lanak Bata, *Lehendakariaren alaba*, Iñaki Petxarromanen *thriller*-a (euskeraz egongo ete da *thriller* berbea?) eta bestetik, *Botere handi batek* komikia, Iban Zaldua eta Julen Ribasen arteko alkarlanaren ondorioa. Lehenean, 2026tik 2040ra getaturikoak kontetan jakuz: EH Bil-

du heldu da Lehendakaritzara, ilegali-zau eta gero Baionan hartzean dau aterpe Gobemuak. Bestalde, klima aldaketaren ondorioz, Espainiako hainbat lekutan ur barik geratzen dabiz eta hori "konpontze" aldera, Euskal Herriko ura ostu eta trenez garraiatzen dabe Madrileko Gobernuaren aginduz. Hori galarazoteko sortzean da ETA Berri, ezagunak jakuzan igesaldi, oldarraldi, traizino, epika, sasitar bizitza eta abarrez inguratutik. Distopian, maitasuna, autodefensa, kontraesana. Makinatxo bat kako egungo egoerea ulertzeko baliagari diranak. Petxarromanek bere ibilbide oparoan jasotako eta landutako informazio ugaria modu biribilean hazumamitu dau. Biga, *Botere handi batek* kontatzen deusku super-gizakiak zelau esku hartu eben euskal

gatazkan, nahiz eta hasikera batean neutralak izateko hautua egin eben. Harrigarria izan badaiteke be, historia eta etikaz asko dauka lan honek: hola, historia hurbileko hainbat jazoera eta persona aurkituko doguz (Txiberta, Monbar, Zabalza, Blanco), beti super-gizakien perspektiba barriagaz. Erreforma garaitik gaur egunera Fizio, Fusio, Depresore eta gainontzeko heroiak ala antiheroiak gatazkeari konpontbide barri (ala zahar) bat emoten saiatuko dira. Erantzukizunez beteriko errokea, hain zuzen, podere handia eukiteak horixe dakarrelako. Bikaina filosofikoki, maisuki idatzi eta marraztua. Lan honek lehengoak ulertu eta aurreragokoak profetizau baino, hausnartu arazo gura deuskuez. Ttak. Zuen da garaipena!

@fantomastxiki



Iñaki Petxarroman

Lehendakariaren alaba

Elkar Argitaletxea, 2024

192 orrialde



Iban Zaldua eta Julen Ribas

Botere handi batek

Ikastolen Elkarte, 2024

64 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 3tik 9ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 10etik 16ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkarte. Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: begitu@begitu.eus. Webgunea: www.begitu.eus. Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarrizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus. Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus. Erredakzino arduraduna: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus. Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa inprimatzeko zentroa. Facebook: [BegituEus](https://www.facebook.com/BegituEus). Twitter: [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus). Instagram: [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXI). Kale berbakunea sustatu guran

HAIZE ZIRIMOLAK

- Hi!
- Hi!
- Ze barri?
- Askorik ez!
- Ba ni arduratuta **ñaok**.
- Zer dala-ta?
- Itzelezko haizeak **jabizek** aspaldian.
- Egia!
- Ba negutegia eroan **behajostek** holango baten!
- Benetan be, komeria **dok** izan azkenaldiko haizeena.
- Bai! Texasen antzera oin haize zirimolakaz hasia baino **etxuk** behar hi!
- Ezeik** altuegi esan badaezpada!
- Ez! Errazoia **dekok**!
- Bueno hi, egongo **gozak**!
- Bai gizona!

ERETXIA

Pantailen erabilerearen inguruko hausnarketak

Tranbia Txiki Arratia Institutuko Guraso Elkartetik pantailen erabilerearen inguruko hausnarketa bultzatu gura dogu ikas komunitatean.

Azkenaldian kezka handia dago ume eta nerabeenagan pantailek daukien eragina dala-ta. Ardura hori etxeko erabileratik eskola eta institutueta erabilerara be zabaltzen da.

Urteokaz diru asko eta asko erabili da ikastetxeak gailuz horniduteko, baina erabilerearen gaineko hausnarketearen beharra gero eta nabarmenagoa da gizartean. Europara begiratu ezker, digitalizazio planak aztertzen dabizala ikusi daikegu. Izan be, inbersino handiak egin diran herrialdeetan ez da ikasketa emaitzetan hobekuntzarik ikusi, oindino gehiago, irakurketa ulermenean behera egin dabe ikasleek.

Gu be guraso moduan, ardurata gagoz, eta beharrezkoa ikusten dogu gailuen erabilerearen gaineko gogoeta eta eztabaidea, familiak eta ikastetxea bere baitan hartuko dituana. Gaur egun, institutuko ikasleei, ikastetxera sartu orduko gailu bana emoten jakie. Ikasgai gehienetan erabiltzen dabe, eta etxerako lanak be, sarritan, ordenagailua lagun egin behar izaten ditue. Gailuek ez daukie ezelango kontrolrik, eduki edo denporeari jagokonez, eta horrek arazoak sortzean ditu etxe askotan.

Ikastetxeko erabileran be, helburuen eta jarraipen zehatzaren falta sumatzen dogu.

Gurasoak ez gagoz pantailen kontra. Konpetentzia digitalak landu behar dirala uste dogu. Hau da, gure seme-alabek gailuak modu seguru, osasungarri, jasangarri, kritikoa eta arduratsuan erabiltzen ikasi behar dabela.

Horretarako, gailuak, ikasleei helduarazo aurretik, konfiguratu egin behar dira. Alde batetik, ikas-

TRANBIA TXIKI GURASO ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

leen edaderako desegokiak diran edukiak saihesteko neurriak ipini behar dira. Bestalde, erabilera mugatu behar da, denpora larregitan erabili ez dagien. Adituen arabera, 12 urtetik 17ra bitartean ordu 2 egon beharko lirateke, asko jota, pantailearen aurrean.

Izan be, gure seme alabek, euren adina eta garapena kontuan hartuz, ezin dabe erabilera arduratsua egin, ez denporan, ezta edukien aukeraketan be. Gainera, distrakzio iturri bihurtzen da bestelako jardueretan dabilzanean be. Horrezaz gainera, gure ume eta gazteak pantailen erabilerarako hezi behar dirala uste dogu, pentsamentu kritikoz jokatu dagien, eta erabilera arduratsuan trebatu daitezcan.

Jasangarritasunari jagokonez, jakitun egin behar doguz ikasleak, ingurumenean zelango aztarna izugarria ixten dauan gailuak neurri barik egiteak, eta baita erabilereak berak be. Pantailak alde batera itxita, ikerketek dinoenez, esku idazteak eta euskarri analogikoak erabilteak abantailak ditu memorian eta arretan. Pentsamentu abstraktua garatzeko eta motibaziorako be hobeak dirala ikusi da. Honeguz ez dogu esan gura pantailak guztiz alboratu behar diranik, erabilera konzientea egin behar dala baino. Institutuari eskatzen deusaguz noz eta zertarako erabiliko diran zehaztea, balio erantsia noz daukien antzeman, eta ikasleen garapena eta ezaugarriak kontuan izanda zentzuz erabiltea.

2024ko zinemendian, Arratia Institutura hurrengo eskaerea bialdu genduan:

-Etxera ekarten dituen gailuek (*Chromebook*) kontrol bat izan dagiela eduki desegokietara sartu ez daitezcan.

-Kontrol hori ez daukien bitartean gailuak eskolan bakarrik erabiltea.

-Eskolan *Chromebook*aren erabilerearen gaineko hausnarketea egitea, eta jarraipen zehatza.

Eskaera hau babestuz sinatu eben: Altxa Burua Arratiak, Arratiako Mankonumitateko Prebentzio Sailak, Tranbia Txiki Arratia BH1ko Guraso Elkartek, Igorreko Eskolako Guraso Elkartek, Zea-nuriko Eskolako Guraso Elkartek, Areatzako Eskolako Guraso Elkartek, Arteako Eskolako Guraso Elkartek, Dimako Eskolako Guraso Elkartek, Tranbia Txikiko bazkideen artean 70 familia baino gehiagok.



LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Hemen euskeraz bizi gara

Bai, holantxe da, Arratiako herri gehienetan euskeraz bizi gara, baina, herriko sarreran ez dau hori jartzen, honako hau baino: hemen euskaraz bizi gara, eta jakina, argi dago, euskera batuaren beharrez inork ez dauala gaur ukatzen. Ni baino adituagoak dagoz gure hizkuntzearen gaitan baina ontzat emon izan doguzan gauza asko, denporaz, errebinoren bat eskatzen dabelakotan nago.

Hizkuntzeagaz, beste gauza askogaz legez zentzuna erabili behar da, logikea, horixe inoan Bittor Kapanaga Otxandioko jakintsuak. Halanda be, bagare, bagera, bagira eta bagara danak bat dira eta batean goaz, baina "era" atzizkiak modua adierazten dau, hizkera: hitz egiteko era, ez ete da ba zentzundunagoa, Bizkaiera, Lapurtera, Gipuzkera, Errusiera, Espainiera eta ez, Erru-

siara edota Espainiara.

Gu, bai BEGITUN eta Arratian, euskeraz gabiltz eta ez euskaraz, "ara eta era" bardintzat emoten badira be. Eta honen haritik, aspaldiko anekdotatxo bat: Zeanuriko Undurruga auzunean, sanpedroak ospatzen ziran eta han ba, jaietako programea zabaldu eben eta honango hau jartzen eban bertan: "itzelezko jaiak sanpedroetan: asteazkenean: bertsolariak, erromeria eta herri kirolak". Eta han joian Braulio azteazkenean. "Baie, Braulio, hi atzeraute habil, eguaztenean izan zoan jai"; "hi, hemen asteazkena ipinten jauk-eta, gaur ez dok ba asteazkena?". Hasi jakozan ba, esanez, gurean eguaztena dana, gaur asteazkena dala; ez egoan guztiz konforne gure Braulio eta adierazpen gehiagoren beharrean egoan. Baina baekian gure hizkuntzea aberatsa dala eta berben esangurak sibolismoz beterik dagozala. Antxinako garaietan 3 egun ziran eskulanerako (beharrerako), *labora*: astelenetik, asteazkenara (eguaztenara). Eta beste hiru, ezagutzarako, ikasteko, meditatzeke edo errezurako (*ora*): eguena (osteguna) barikua (ostirala) eta zapatua (larunbata); eta azkena, domekea edo igandea, deskansurako. Ez legoke txarto, e!

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Beraiek marraztu dituzte, baina guk ez ditugu ikusten. Haizeak ez dakiz irakurtzen, itsasoak ez ditu onartzen.

Gure sustraiak dira, lerro batek margotutako mapetan.

Ez gaituzte ulertzen, ez dakitelako entzuten, ez dutelako basoen arnasa sumatzen, taupaka, entzuten.

Orain, hemen gaude, bizi, ala iraun, hitz eta hots artean, mugarik gabeko lurrean.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Urtailaren 27ko goizean sorpreseak harrapau ginduzan beste herriarren mezuen bidez Lemoan mural feminista kentzean ibili zirala heldu jakunean.

Zaplastek, Lemoako talde feministaek, ez ekian ezer horri buruz. Ustebakoan, eta amorruz jota, gure sare sozialetan salatzea ebatzi genduan.

Salaketearen erreakzino handia ikusita, Lemoako Udala gugaz harremanetan ipini zan. 2019ko Topagunetik egoan pintadea ezabatu ostean (eta ez, ezer egin aurretik), "azalpenak" emotea beharrezkoa zala ebatzi eben.

"Autodefentsa feminista" esaldiaren ostean balore, aldarrikapen eta printzipio asko dagoz. Baina argi dago honeek ez dirala behar bezain garrantzitsuak horma zuriz estaltzeko agindua emon dabeneztat.

Feminismoa ez doa kolore edo alderdi politikoen inguruan. Feminismoa andron inguruan doa. Eta andra moduan, Udalak hartutako ebatzi hau erasotzat hartu dogu, feminismoaren kontrako ekintza lez.

Feministak garala esaten badogu, zergaitik ez gara danok benetan feminista? Zergaitik ez gara danon artean feminismoa zaintzean saiatuten? Zergaitik ez gara alkar zaintzean?

Feministok ez gara geldi geratuko honen aurrean! Lemoa feminista bat eregi daigun, GORA BORROKA FEMINISTA!

Naroa Lopez, Udane Marques, Maialen Gil eta Eider Lopez Zaplasteko kideak



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
ikolagata Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

LEMOA

Garbiketako langileek lan hitzarmenak sinatu dabez

Lemoako garbiketaren gremioko langileak, bide desbardinatetik, burrukan egon dira atzenaldian euren lan baldintzak hobetuteko.

Erredakzioa

Batetik, Lavanderias Ilunion ikuztegi industrialeko langileak 2023tik egon dira burrukan eta ELA, LAB eta CCOO sindikatuak ordezkatuta, euren lehen hitzarmen kolektiboa sinatu dabe. Bestetik, kale garbitzaileek be sinatu dabe euren akordioa, ELAk gidatuta.

Ilunion enpresako langileek hainbat burruka ekimen egin ebezana 2023an eta 2024an, greba egunak bane. Atzenean, enpresa batzordeak lortu dau patronalagaz 2023-2025 urteak baitan hartzean dauzan hitzarmen kolektibo propioa sinatutea eta datorren urtean, hitzarmena barriz negoziatuko akordioa dago. Hamabost urteren ostean, "bizitzak duintzeko" balioko dauan lehen hitzarmena da hau.

Izan be, hitzarmenaren bitartez langileek hobekuntzak lortu di-

tue, atzerakinak kobroteaz aparte. KPlaren igokerea baitan hartu eta aurten %1 gehiago izango dabe, Horrezaz gainera, ofizial kategoriatan sortu eta honeek %6ko igokerea izango dabe soldatan. Antxinakotasuna hobetutea eta lan egindako jai egunen soldatea be handituko da, egun libreak hartu eta baja hartzearen egoera hobetuteaz gainera.

Udal garbiketaren zerbitzuak

ELA sindikatuak gidatuta, Lemoako udal garbiketaren zerbitzuetako langileak be egon dira edo badagoz hobekuntzak exijiduteko burrukan murgilduta. Negoziazioa hiru bideetatik joan da, hiru azpikontratagaz: kale garbitzaileak, lorazainak eta udalaren lokalen garbitzaileak. Kale garbitzaileak sinatu dabe daborduko hitzarmena, %15eko soldata igokereagaz. Lanaldi murrizketea, lanpostu hutsak beteteko betebeharra, indarraldi mugabakoa eta honek apliketako bermea be jasoten dau hitzarmenak.

ELAko Jon Ander Zelaiak BEGURI azaldu deusanez, sindikatua hiru azpikontratakaz eta Lemoako Udalagaz ibili da batzean udal garbiketaren zerbitzuetako langileen lan baldintzak hobetuteko. Kale garbitzaileen hitzarmena sinatuta, "helburua da datozen asteetan (lorazain eta lokaletako garbitzaileen) akordioak be behingoz sinatutea", adierazto dau Zelaiak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gorbeia, Euskadiko Bihotz Berdea bideoa aurkeztu dabe Fitur azokan

Gorbeia helmuga turistikoak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailagaz eta Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiakaz lankidetzan, Paco Nadalen, *Gorbeia, Euskadiko Bihotz Berdea* aurkeztu eban Madrilan Fitur Nazinoarteko Turismo Azokan.

Erredakzioa

Aurkezpenean, Paco Nadal kazetari eta idazleak bideoaren aurre-irribarrena partekatu eban. Bertan, Gorbeia Parke Naturala, pagadiak, ur-jauziak eta inguruko he-

rriei egindako bisitua jasoten da. Izan be, 2024ko urrietan, Nadal parke naturalean egon zan eta hainbat jardueratan parte hartu eban. Bideoak, 8 minutu eta 32 segundoko iraupena dauka eta Nadalek bisitako paisaiak

eta esperientziak erakusten ditu, "Gorbeia esentzia benetako leku berde eta bizitzaz betea lez, transmitiduz".

Aurkezpen ekitaldian, Agustín Otsoa Eribeko Landa, Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea;

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hezkuntzak hartutako norabideaz kezkatuta dagozan hainbat irakasleek HezkuntzArtea sortu dabe

Aurreko ikasturtearen amaieran hezkuntza politikazko kritiko dan irakasle talde bat hasi zan batzean Artean HezkuntzArtea Irakasleonen Elkargunea sortuz.

Erredakzioa

Bertan, EAEko 30 irakasle pasatxo dagoz kezka konpartiduten. "Ebidentzia zientifikorik bako metodologia barriak", "gainezka egiten dauan burokrazia" eta "IKTen erabilera zentzubakoak" dira kezka horreek. Zezeilaren 15ean egingo dabe aurkezpen ofiziala Bilbon.

Taldearen sorrerarako garrantzia handia izan eban Carlos Fernandez Liriak eta Tere Maldonado Barahonak igazko apirlean Herriko Bentan emondako berbaldiak. "Hizkuntzen politiken inguruan kezka geunkan lagun bik. Lagunak, Fernandez Liriaren liburu irakurritu eukan eta bagenkienez Herriko Bentan jarduerak egiten zirala, ba antolatutako genduan berbaldia" azaldu deuto BEGURI Maider Landa Fisika eta Kimikako irakasleak eta HezkuntzArte taldeko kideak. Fernandez Liriak eta Maldonadok beste berbaldi bat emon eban Bilbon eta han bertaratutakoen kontaktuak jaso eta hilean behin Artean batzean hasi ziran. "Momentu haretan ni Laudioko institutuan nengoan, Ezkurtetik (Bilbo) igesi. Urte batzuk neroiazan Ezkurtze Institutuan baina Eremuka lan egiteko metodologia sartu eban eta leku aldatutea ebatzi neban" dino Landak.

Metodologiak, burokrazia eta IKTak


Metodologia barriak zein zaharagoak, onak edo txarrak izan daitezala sinistuta, "ikasleen ikasketa prozesurako gehienetan baliagarriak ez diran ebidentzia zientifikorik bako metodologia barrietan" etenbarik trebatzen dituela salatzzen dabe irakasleek. "Barrikuntza berbea erabilita dana sartzean dabe: oin gamifikazioa, jolasen bidez ikastea; oin Eremuka lan egin beharra, oin mobimentu askea, eta horretarako eskolako hormak botaten doguz..." dino Landak. Dirua xahutu eta edukiak ez dirala behar beste baloratzen be uste dabe taldekoek. Eta horreek ikasleek gitxiago ikastea eta maila baxatutea dakarrela.

Larregizko burokraziak irakasleonen eginbeharra oztopatzen

dauala be salatuten dabe. "Txostenak, galdetegiak, egingarriak ez diran programazio ulertuezinak..." horreek danak klaseak prestatzeko denporea kentzean dabe.

Gainera, taldea sano kritikoa da IKTen erabilereagaz. "Ikasketa prozesuan gailu horreek guztiak sartzeak ekarri eban promesa zoragarri ha iruzurra dala gero eta argiago dago" dino Tere Maldonado taldeko kideak Argiari emondako alkarrizketa baten, eta koadernoak berreskuratzea aldarrikatzen dau. Ados dago Landa. "Badirudi dana egin behar dala ordenagailuz, eta ez. Ez da holan. Fisika eta Kimika ikasteko boligrafo hartu behar da" dino.

Hezkuntza sistema publikoa indartzea be HezkuntzArtearen helburuetako bat da.



Olatz Urkiza Atutxa, Gorbeialde LGEko presidentea; eta Paco Nadal bera, egon ziran, inguruko aberastasun naturala, kulturala eta gastronomikoa islatzen dauan bideoaren aurkezpenean. Eribek mota horretako ekimenen garrantzia azpimarratu eban, Gorbeia helmuga turistiko

iraunkor eta aktiboa izan daite; Urkizak, lankidetzaren publikopribadua nabarmendu eban eta Nadalek bere esperientzia personala partekatu eban, paisaien edertasuna eta jentearen berotasuna nabarmenduz.

Bideoa eskuragarri dago Nadalen Youtube kanalean.



BEDIA

Eleixalde eta Asteitzaren arteko oinezko konexinoa hobetuko da aurten



Erredakzioa

Urtailaren 22an onartu ziran Bedian 2025erako udal kontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzioagaz. Guztira 1.749.621 euroko aurrekontua da, igaz baino 127.000 euro gitxiago.

Ha-ta guzti be 568.000 euro dagoz Azpiegitura eta Urigintza arloko inbersioetarako. Euren artean, diru partidarik handiena Eleixalde eta Asteitza auzoen artean konexinoa oinezkoentzako hobetuteko da: 300.000 euro dagoz espaloia egin eta batetik bestera oinez joateko modua errazteko. Hurrengo diru partidarik handiena plazan, jolas gehiagotarako da; 136.000 euro dagoz.

Argiteriaren efizientzia energetikorako 132.000 euroko diru partidea dago eta beste 41.000 euro dagoz HAPOa egiten jarraituteko.

Kultura eta arlo sozialerako, 278.524 euro dagoz. Partidarik garrantzitsuenak, Gazteriarako dagozan 110.823 euroak edo kulturako bidaietarako 40.405 euroko diru partidak dira. Udalekuetarako beste 35.000 euro dagoz, ikastaroetarako 21.000 euro eta Bardintasunerako beste 20.000 euroko diru partidea.

EH Bilduren abstentzioa

Bediako EH Bilduk abstentzioa azaldu eban urtailaren 22ko osoko bilkuran. Aurrekontuak orokorrean onak iruditen jakiezala eta ez ebe-la kontrako botorik emongo esan eban EH Bilduko Alberto Sanchezek. Baina aldeko botorik be ez ebela emongo eta horren errazoa, beste batzuen artean, aurrekontuetan herritarren partaidetza egiteko modua zala esan eban. Izan be, Bediako Liburutegian jasoten dira herritarren ekarpenak aurrekontuetarako, baina Bediako EH Bildu auzo eta arloetako batzarrak egitearen alde dago.

IGORRE

Jente-aurrean aurkeztuko da Bardintasun Plana



Erredakzioa

Igorreko II. Bardintasun Plana indarrean dago 2024tik eta plana azaltzeko eta urtebetean egin-dakoaren barri emoteko, Plana diseinatu eban Daiteke aholkularitzako kideak egongo dira zezeilaren 7an, 18:30ean, Kultur Etxean.

Plana diseinetako prozesuan parte hartu eban eragile guztiak deituta dagoz, baita interesautarako dagozan herritarrek be; izan be,

kezka eta ekarpenak jasoteko udal taldea egongo da bertan. "Planaren espirtua azaldu eta nondik norakoak zehaztuko dira. Eta lehenengo urte horretan egin-dako lorpen zein ahaleginak be azaleratuko dira. Hau da, programa operatiboaren ibilbide labur bat eskainiko da gero herrigintzatik etorri daiteken edozein iradokizun, keja eta kezka jasoteko" azaldu deutso BEGITURI Amagoia Villanueva Bardintasun Teknikariak.

Lemoako protokoloa

Jente-aurrean be aurkeztuko da Lemoako indarkeria matxistei aurre egiteko herri protokoloa. Zezeilaren 18an izango da 18:30ean, Kotxepin Kultur Etxean. Protokoloak metodologia bat sortzean dau edozein arlo edo esparrutan detektatu daitekezen kasuen aurrean zelan jokatu jakiteko, eta prebenzino neurriak be planteetan ditu. Erraminta bat da erakundeen arteko koordinaziorako.

ARRATIA, ZEBERIO

Arratia eta Zeberioiko ikastetxe publikoetan batez beste irakasleen %73k egin eban greba

Erredakzioa

"Lan baldintzak hobetu hemen eta orain erabakita" lelopean, LABek, Steilasek, ELAk eta CCOOk deituta, urtailaren 22 eta 23an Arratia eta Zeberioiko irakasleen %73k egin eban greba batez beste, baina desbardintasun handiak egon ziran ikastetxearen arabera. Izan be, Dima, Zeanuri eta Zeberioiko eskoletan gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran egon eta Artekoan be irakasleen %90ek egin eban greba; Areatzako eskolan eta Arratia Institutuan barriz erdiak baino gitxiagok. EAEn, irakasleen %75ek egin eban greba sindikatuen arabera eta %48 Hezkuntza Sailaren arabera.

Irakasleen eskakizunen artean, lan hitzarmena eta lan baldintzak eguneratzea dago, 15 urte dirata eguneratu barik dagozala; lan kargearintzea; enplegu publikoa konsolidatu eta bermatzea; eros ahalmena berreskuratzea eta lan osasuna, euskera eta hezkidetzaren bermatutako neurriak hartzea.

Horretarako sindikatuok 12 greba egun deitu ditue urtail eta zezeilean. Lehenengo txandean ostan eta Eusko Jaurlaritzeagaz akordioz ez bada lortzean, zezei-

laren 26 eta 27an irakasleak grebara dagoz deituta barriro; 12 eta 13an Haurreskola Partzuergoko langileak, eta zezeilaren 19 eta 20an, sukaldeko eta garbiketako langileak.

Jarraipen desbardina gure eremuko eskoletan

Areatzako herri eskolan, irakasleen %45ek egin eban greba lehenengo egunean eta %40ek

bigarrean; Arteko eskolan, egun bietan %90ek; Igorreko Inazio Zubizarreta eskolan %67k lehenengo egunean eta %73k bigarrean; Lemoako J.B. Eguzkitza Meabe IPlan, %76k urtailaren 22an eta %70ek hurrengo egunean eta Zeanuri eta Zeberioiko eskoletan, gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran egon. Arratia Institutuan, irakasleen %41ek egin eban greba 22an eta %46k, 23an.



AREATZA

Hirurehun zugatz landatuko ditue Areatzako herritarrek hilaren 15ean

Erredakzioa

Zezeilaren 15ean, Zuhaitz Eguna ospatuko dabe Areatzan, Makala inguruan, 300 zugatz landatuz. Partaideak, ume zein nagusi, eleiza aurrean batuko dira 10:00etan, Makalara joateko eta zugatzok landatu ostean, hamaiketako egongo da. Norberak bere atxurra eroatea eskatzen dabe.

Igaz 225 zugatz landatu ziran eta aurten 300 zugatz autoktono, haretzak, urkiak eta lizarrak batez be sartuko dira Larreder pasau eta Makala inguruan, Gorostolan. Izan be, baso bat bota zan han eta hori beteten saiatzen dabil Udala. Lurra Udalarena da eta zugatzak Bizkaiko Foru Aldundiak ipiniko ditu. Zugatzak sartzeako zuloak eginda egongo dira, BFA arduratzen da-ta zuloak egiteaz. Hamaiketako inguruan dagoan

etxola baten egingo da. Parte hartzeako hilaren 13ra arte emon daiteke izena <https://labur.eus/ZuhaitzEguna2025> estekako formularioa betez.

Bedian be izena emon behar da

Bedian eta Diman be landatuko dabez zugatzak. Bedian, zezeilaren 23an ospatuko dabe Zuhaitz Eguna. Bediazarrak 10:00etan batuko dira plazan San Lorentzo

baseleizara joateko zugatzak landatzera. Umeak heldu batez joan behar dira eta lana egin ostean txixi-burduntzia egongo da. Udala arduratuko da suaz eta txorizoa eta ogia bakotzak berea eroango ditu. Parte hartzeako izena emon behar da liburutegian zezeilaren 14a baino lehen.

Beste herri batzuetan be, Zuhaitz Eguna egiteko asmoa dago baina data ez dago zehaztuta.



ARRATIA, UBIDE

Arratiako Udalen Mankomunitateak Bardintasun Zerbitzua indartuko dau

Arratiako Udalen Mankomunitateak 6.935.267,37 euroko aurrekontua kudeatuko dau, 2024koa baino %3,2 handiagoa.

Erredakzioa

Urtilaren 22ko plenoan onartu zan, EAk alde emondako botoakaz eta EH Bilduren abstentzioagaz. Bardintasun Zerbitzuan beste kontratazino bat egiteko konpromisoa hartu da, zerbitzuak behar izan ezkeru.

Partida nagusietakoa personen zein familien babeserako eta arretarako jarduketa guztietarako erabilitakoa izango da. Honek aurrekontuaren %21,63 hartuko dau, ia 1,5 milioi euro. Euren artean, gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) dagoz, 342.000 eurokoak, Eusko Jaurlaritzak 251.000 finantzetan dauz; etxez etxeko laguntzarako zerbitzua, 379.701 euro edo desgaituak gizarteratzeko laguntzinoa, 15.000 eurokoa.

Beste programa batzuk, bazterketa arriskuan dagozanei laguntzeko zerbitzua (112.404 euro) edo Adikzinoen Prebentzinoa (91.491 euro) be badagoz aurrekontuan. Andren eta gizonen bardintasuna sustatzeko 65.470 euro dago eta beste kontratazino bat egiteko konpromisoa be hartu da, zerbitzuak behar izan ezkeru.

"Aurrekontuan, enplegua sustatzeko konpromisoa be azaltzen da, tokian tokiko lan merkadua dinamizetako jarduketa zehatzen bitartez. Bestetik, 247.500 euroko inbersinoaren bidez, lan aukerak eskainiko dira, eta kontratazino-rako programak be jarriko dira martxan, eskualdeko ondoizatea eta jasangarritasuna be bultzatzeko asmotan. ALPE eta Lehenengo Lan Esperientzia programek, barbarako, lanbakoak eta lehen biderrez laneratu gura daben gazteak daukiez helburu, etorkizuneko enplegarritasuna eta laneratzeko prozesua hobetu guran" azaldu dabe AUMtik prensa-ohar baten.

Arlo ekonomikoari eta ingurumen arloari jagokonez, uri hondakin solidoak batzeako eta tratetako, 1.538.010,67 euro dagoz, aurrekontuaren %22,18. "Zerbitzu hori tasen bidez finantzietan danez, zerga ordenantzea berrikusi da, benetako kostuetara egokitzeko eta zerbitzuaren jasangarritasuna bermatzeko. Holan, bada, etxebizitzetarako tarifa %13 gehitu da; eta, merkataritzarako zein industrietarako, %5". AUMk, hondakinak sorlekuan banatzeko premiearen inguruan be sensibilizatu gura dauz biztanleak, isurketearen kanona gixitzeko eta, epe luzera aurrezteko eta ingurumenak hobera egiteko.

Arratiako egoitzea

Aurrekontuan, 2.607.986,82 euro, hau da, guztizkoaren %37,4, erabiliko da Dimako edadekoen egoitzarako, AUMeko erakunde autonomiaduna. "Egoiliarren ondoizatea, bertako instalazinoen jardunbide egokia eta funtsezko zerbitzugintza bermatuko dira" aurrekontuagaz.

EH Bilduren abstentzinoa

EH Bilduk abstentziorako errazoiak azaldu ebazan bilkuran. "Beste urte batez badaukaguz kontra bozkatzeko argudioak. Adibidez: AUMtik hartzean diran zaborren arloko neurriak efektibistagoak dira efektiboak baino, baita oin dala urteak alderdion artean adostu genduan dependentzia maila bajuko adinekoentzat zentro pilotua oindino martxan ipini barik izatea be. Horrez gainera, planifikazino bako kuota igoerak eta aurrekontuak Udal batzuen ondoren onartzearena hobegaria dala iruditzen jaku. Ha-ta guzti be, Bardintasun zerbitzuari emondako baiezkua dala-ta abstentidu egingo gara" esan eben.



LEMOA

Kamarak ipini eta poliziaren presentzia handituko da Lemoan

Lemoako Udalak, herria seguruago egiteko asmoagaz, kamarak instalau, poliziaren presentzia handitu edo Arraibin okupata dagoan industria pabiloia hustutea ebatzi dau beste neurri batzuen artean. Gazteentzako etxera lagunduta itzultzeko proiektu pilotua eta argiztapena hobetutea be iragarri ditu.

Erredakzioa

Udalak herritarrei helduarazotako informazino orri baten jakinarazoten ditu neurriok. Sei dira. Euretako batzuk igazko urrietatik dagoz indarrean eta beste batzuk fase desbardinetan dagozan proiektuak dira. Urri lehenengoan hasitako bat, "udal egiturea aldatzea, segurtasun beharrei hobeto erantzuteko" da. Izan be, segurtasuna udal batzordeetako baten sartu dabe. "Esku-hartzea indartzeko eta dedikazino handiagoa eskaintzeko, segurtasuna batzordeetako batean sartzea ebatzi eban Udalak. Holan, Proiektu Estrategikoen, Parte-hartzearen, Segurtasunaren eta Komunikazinoaren Informazino batzordeek arreta handiago eskaintzen deutse Lemoako bizilagunen babesagaz lotutako gaien".

Aurrekontuetan lehen aldiz, segurtasunerako diru partidea dago, 5.000 eurokoa, handitu daitekena beharren arabera. Diru horregaz aurreikusita dago "kamarak instaletea edo segurtasuneko langileen kopurua uanean uanean indartutea".

Gazteei etxera lagunduteko proiektu pilotu baten barri be emon dau Udalak. Proiektua diseinu fasean dago eta Oinezbusaren antzeko zerbitzua izango da Lemoako "erdigunetik urrun bizi diran gazteek begirale bategaz etxera itzultzeko aukerea izan dagien". Degradutako espazioak berreskuratzea eta argiteria hobetutea be aurreikusten dau. Argiteriari jagokonean, 2024an,

80.000 euro baino gehiago inbertidu ebala Udalak argiteria hobetuteko eta 2025ean, holan argiztapena hobetuten jarraituko dabela jakinarazo dabe.

Poliziaren presentzia handitu eta okupatuko pabiloia desokupau

Informazino orriak dakarzan atzen neurri biak, polizia errefortzua eta Arraibiko industria pabiloi okupatua hustea dira.

Poliziaren errefortzua "lasaitasun handiagoa emoteko" dala dinoe, "prebentzino jarduera" legez. "Urri lehenengoaren 1etik, abenduaren 31ra bitartean, Ertzaintzak 1.539 prebentzino

ekintza egin ditu Lemoan (etxez etxeko zainketak, merkataritza zaintzak, errepide kontrolak sarbitdeetan...), eta Ertzaintzaren 840 jarduketa erregistrau dira" azaldu dau Udalak.

Arraibiko industria pabiloia jagokonean barriz, industria pabiloia pribadua dala eta eraikina husteko kudeaketa judizialak eginda dagozala irakurri daiteke orrian. "Aldi berean, Udalak botatze administratiboko espediente bat hasi dau, eraikinean, Arauek baimentzen ez daben erabilera eta jarduera bat egiten dala egiaztatu daualako. Gainera ez dira osangarritasun eta bizigarriritasun baldintzak beteten".



ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
Bilatu dago jabea Bilatu dago proiektu
-Salmentan zein alokairuan
Lurak (enkitze, landa, baso...)
ETxebizitzak (buzak, baserri, etxe...)
Garaioak
Lokal komertzialak
Pabiloia...
-Solentzioak
Erakin berrik enkitzeko
Etelentak
ARKITEKTURA-proiektuak
-Barne diseinua
-CEE eta IEE-ak
-Hirigintza ohikuaritza
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lehendakari Agirre 25, 40001 - Iruñea
Telefonoa: 94 431 81 81 - 435 16 35 35
Gizarte Zerbitzua: 94 431 81 81
Webgunea: www.arratia.com

Kili-Kili
Amepa eta Puzitza
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gixitua
Begiako tentsinoa
Lentilen adaptazino
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ZEANURI

Artea neurtuz eta kanpaiak eskuz joz, ospatuko dabe San Balendin Eleizondon

Aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenaz ezetuten dan ermitearen inguruan, San Balendin egunaren hurrengo domekan, zezeilaren 16an.

Jon Urutxurtu

2025ekoa artea neurtzen daben 66. urtea izango da. Gainera, kanpaiak eskuz joko dabez Pedro eta Jose Antonio Lejarzak, Iñaki Lejarza Andra Mari parrokiaren azken kanpaijolearen semeek.

Jaia ospatzeko egitarau apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondotarrek: kanpaiak eskuz joko dabez Lejarza anaiek, lehengo 11:00etan eta gero 11:30ean eta gura dauanak, kanpai-jotea bertatik bertara ikusteko eta entzuteko aukerea izango dau, kanpantorrera igoz.

Meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan. Santua eleizatik ateraterakoan, herriko umeek Agurra jantzutako deusie eta ostean ermitara bidea egingo dau prozesinoak, datorren urtera arte bertan itxeko.

Jarraian ermitearen aurreko artearen neurketeari ekingo deusie eta neurketearen akta sinatu eta gero, oin arteko maiordomoak, Igor Intxaurragak, 2025ekoari, Iñaki Lejarzari, agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deusiaz. Iñaki Lejarza Eleizondo auzoko persona beteranoena da, 91 urte ditu, eta bera izan zan parrokiako azken kanpai-jolea.

Ondoren barauskarria, urdaia, pamtixa eta ardaoa, bananduko da Eleizondora hurreratzan diranen artean. Ekintza horreek herriko tistularien eta Arkaitz Estiballes bertsolariaren kantuen artean egingo dira.

Egitarau honetan aitagarria da oin dala hirurogeta sei urte eleizondotarrek hasi eben eta oin dala hamazazpi urte, aldi baten bertan behera itxita egon ostean, berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurketea. Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 193 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran.

Egitaraua

11:00etan eta 11:30ean, kanpaiak eskuz jo eta kanpantorrera igoteko aukerea.

11:30ean mezea; ostean, San Balendinen irudia Piedadeko ermitara prozesinoan; umeen eta Arikibar jantza taldearen Agurra San Balendineri; pamtixen be-

deinkapena; 12:15ean, Piedadeko artearen neurketea eta maiordomari agiri liburua eta ermitako giltzak pasetea.

12:30ean, barauskarria: urdaia ardaoa eta pamtixa.

Herriko tistulariek eta Arkaitz Estiballes bertsolariak alaituko dabe giroa.

Iñaki Lejarza, Andra Mari parrokiako azken kanpai-jolea

San Balendin eguneko mezara deitzeko eskuz joko dabez kanpaiak Pedro Mari eta Jose Antonio anaiek, euren aita eta Andra Mari parrokiako azken eskuzko kanpai-jolea izan zan Iñaki Lejarzaren (1933-5-20) lekukoa hartuz. Iñaki kanpai-joteaz arduratu zan 1994. urtera arte. Gainera, aurten Lejarza familiari jagoko 2025 urteko maiordomo kargua hartzea eta ondorioz ermita giltzak eta aktea jasoko ditu.

Iñakiren aita, Andres Lejarza izan zan familiako lehen kanpai-jolea eta Iñakik umetatik aitari laguntzen eutsan zeregin horretan. Aita hil zanean berak hartu eban lekukoa eta holan jarraitu eban 1994ra arte, Andra Mari parrokia zaharbarritze beharrak egiteko itxi zan arte. Guztira, 46 urtean izan zan Andra Mariko kanpai-jolea.

Iñakiren arabera, "egunero-egunero hiru joaldi egiten genduzan: goizaldeko 06:30ean, arimena; 12:00etan, angelusa eta ilunkeran, abemariak. Hiru joaldi horreek kanpantorrera igon barik jotzen genduzan, kanpantoretik eleizako sarrera etorren soka tiratuz. Baina mezatara deitzeako,

kanpantorrera igoten nintzan eta eskuz eragiten nebazan kanpaiak. Kanpantorreko hiru kanpaiak aldi berean jo behar baziran, aitari nik eta Jose Antonio anaiek laguntzen geuntsan. Gero, ni kargu egin nintzanean, nire seme biek, Pedrok eta Jose Antoniok, laguntzen eusten. Eguneroko hiru joaldiak kanpantorrera igon barik jotzen ziranez, nire emaztea, Benedikta Ibarrando (+) be sarritan arduratzen zan zeregin horretaz".

Baina eguneroko hiru joaldiez gainera, beste batzuk be baegozan eta badagoz, bakotxa bere berezitasunagaz: "adibidez, hilkanpaiak baten bat hiltzen zanean jotzen ziran: gizonezkoa bazan hasieran hiru joaldi egiten ziran; andrazkoa bazan, bi. Sute bat baegoan su-kanpaiak jotzen ziran; ekaitz gogorren bat etorrela ikusten bazan harri-kanpaiak...".

Iñakik gogokoan daukazan joaldiak jaietakoak eta Gabonetakoak dira, "joaldi luzeak, baina aldi berean poztasuna adierazoten dabenak. Gainera, hemen Zeanurin, oindino be zapatuetan eta jai-bezperetan arrastiko hiruretan beti jotzen dira kanpaiak".

Gaur egun Iñakik 91 urte ditu, Andra Mari parrokiaren ondoko etxean bizi da eta egunero begiratzen dau kanpantorrera. San Balendin jaia ospatzen dan egunean ez ditu igon beharko hamaikatxo aldiz igon ebazan kanpantorreko ehundik gora eskailerak, era testimonialean bada be, bere seme biek, Pedrok eta Jose Antoniok, eskuz joko dabez mezara deitzeako.

Andra Mari parrokiako lau kanpaiak

Andra Mari parrokiak gaur egun konserbazino egoera onean dagozan eta iraulketa mekanikoa daukien lau kanpai ditu:

1- Santa Maria deritxana: handiena eta zaharrena da, 1722koa. 136 zentimetroko diametroa dauka, 953 kilogramo inguruko pisua eta 125 zentimetroko altueria. Holan dino bere kanpaiak grabauta daroan inskripzioak: *Regina in caelum assumpta ora pro nobis*.

2- Kanpaia deritxana: 89 zentimetroko diametroa dauka eta Viuda de Murua enpreseak egin eban Gasteizen.

3- Inmaculada deritxana: 122 zentimetroko diametroa eta, aurrekoa legez, Viuda de Murua enpreseak Gasteizen egindakoa.

4- Asunción deritxana: 1953koa, 88 zentimetroko diametroa dauka.

Gaur egun, guztiek daukie iraulketa mekanikoa, nahiz eta lehenago, 1994ra arte eskuz erabilten ziran.

Piedadea ermitea: San Balendinen etxea eta Eleizondoko gune monumentalaren parte da

Piedadea izenagaz ezetuten dan ermitan gordetzen da San Balendinen irudia urtean zehar. Ermita hau Eleizondoko gune monumentalaren parte da. Gune horretan ondare interesgarria osotuten daben honako elementu honek biltzean dira:

-Andra Mari parrokia: 1702 eta 1751 urteen artean eregia, aurreago egoan beste eleiza bat aprobetxauz. 1994. eta 2002. urteen artean, zaharbarritua izan zan. Bizkaiko erretularik ederrenetakoa ikusi daiteke bertan.

-Piedade errendegi baselizea: bere eleizpetik igarotzen zan Erdi Aroko galtzadearen arrastoak ikusi daitezke oindino. Ermitearen aurrean arte eder bat dago, oin dala 66 urtetik eleizondotarrek San Balendin egunean neurtzen dabena.

-Nestor Basterretxearen kurtzea: Gorbeiko kurtzearen men-

deurrena ospatzeko altxatu zana.

Piedadea ermitea eta bere ezaugarriak

Eleizondoko Piedadea, errendegi ermitea —*ermita humilladero* gatzeleraz— izenaz ezetuten dan tipologiakoa da. Era honetako baseleizeak herrien sarreretatik hur, bide bazterretan, eregiten ziran edota, Piedadearen kasuan gertatzen dan lez, bere eleizpetik galtzadea igarotzen zan. Eleizondon oindino ikusi daiteke Erdi Aroko galtzadearen tarte txiki bat.

Dirudiane, antxina, era honetako ermitetan kurutzearen aurreko errendia (umildura) egiten zan; zeremonia horren bidez ibiltariak bere fidel izaerea adierazoten ei eban, hau da, ez zala moroa ezta judua be; horrez gainera, herrian sartu aurretik, gogo baketsuak ez torrela adierazo gura eban.

Eleizondoko Piedadea baselizea XVIII. gizaaldikoa da. Oin laukizuzena, 7,20 m X 5,30 m dauka; hormak errekarizkoak dira, harlandu txikiak ertzetan eta huts-guneen inguruetan. Lau uretako teilatua dauka, eta ez dauka kanpantorrerik.

Eleizpea zarratua da, eta puntu-erdiko ate bi eta leiho zabal bat daukaz, hau be puntu-erdikoa. Sarrerek burdinaz sareztatutako atek daroet eta leihoak be burdindun hesia dauka.

Baselizarako sarrerea puntu-erdiko arku bat da, egurrezko hesi bategaz itxia, arku horretan tertatzen da barrura sartzeko egur-atea.

Baselizan gordetzen diran irudiak: Piedadea, Jesusen Bihotza eta San Balendin.

Jaia: lehenago San Balendin eguneko mezea parrokiaren emontzen zan. Jai bezperan santuaren irudia parrokiara eroaten zan prozesinoan, eta San Balendin egunean, ermitearen inguruan buelta bat emon ondoren, bere jatorrizko lekuan ixten zan. Azken urteotan ohitura hau berreskuratu egin da.

San Balendinen biografia

Erromatar Martirologioak Balendin izenagaz santu bi aitazen dauz: bata, abadea da eta bestea, gozaina. Beharbada, nahasketa bat egon daiteke, eta persona berberari buruzko historia bi izan daitezke. Bata, Terni-ko San Balendin da; Interamnako (gaur egungo Terni) gotzaina izan zan. Ospetsua izan zan ebanjelizatze lanagaitik, sendatzeengaitik eta mirariengaitik. Aureliano enperadorearen jazarpenetan kartzelaratu eta burua ebagita hil egin eben K.o. 273an. Bere gorpua Terni-ko katedralean dago.

Bestea, Erromako San Balendin da. Klaudio Godoa enperadorearen jazarpenak jasaten ebazanei laguntzen eutsen. Baina bera be kartzelaratu eta torturatua izan zan, eta burua ebagita hil egin eben, 268ko zezeilaren 14an. Bere erlikia gehienak Santa Praxades eleizan dagoz.



AREATZA

Areatzak 2025eko aurrekontuak onartu ditu

Urtailaren 21ean onartu ebazan Areatzak 2025eko aurrekontuak, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Aurten, 1.866.400 euro kudeatuko ditu Udalak; iaz baino %2,1 gitxiago.

Erredakzioa

Ha-ta guzti be, diru gehiago izango dau Udalak. Alde batetik, sarrera arruntak igazko aldean %3,2 txikiagoak izango badira be, kapitalaren sarrerak %14 igotea aurreikusten dalako. Eta beste aldetik, gastu arruntak %7 igon arren, kapitalaren gastuak ia %26 gitxitzea aurreikusten dabelako aurrekontuok.

Aurrekontuak egiteko jentearen proposamenak hartu dira kontuan. "Oposizioak aukerak izan ditu aurrekontuei proposamen zehatzak egiteko eta ekarri dabena, Gobernu Batzordea sortzearen truke, absteniduteko prest egotearena izan da" dioe EH Bildutik.

Inbersinoei jagokienean, Alde zaharra zahar barritzuteko, Aragoetan erortzeko zorian dagozan eraikinak botako dira, eta orubean aurreikusitako proiektua ipiniko da martxan. Bitartean, behin-behineko aparkalekua ipiniko da alde zaharreko biztanleentzat. Aparkaleku honetarako 40.000 euroko diru partidea dago. "Aurrekontu honeekaz etxebizitzari bultzadea emoten deusagu Aragoetako ingurunea barritzuz eta Alde Zaharraren etxebizitzaren egorearen inguruko ikerketa bat egingo da" azaldu deutso BEGIturi Miren Madariaga zinegotziak.

Argizatzea barritzuteko 30.000 euro dagoz. "Hainbat urtetan zehar inbersinoak egin dira konsumo energetikoa murrizteko. Oin, aginte koadroak ipintea baino ez jaku falta eta 2025 eta 2026 urteetan gauzatuko da hori" dioe EH Bildutik. Komunitade energetikoa

sortzeako proiektua dago Udala eta herritarraz batera.

Inbersinoetarako beste diru partida batzuk be badagoz: sare konexino eta azpiegituretarako 65.000 euro, eta HAPOrako 63.488 euro, esate baterako.

Bardintasuna, kultura, kirola eta helburu sozialetarako ekintzak sustatzen jarraituteko beharrezko ekimenak be abiatuko dirala dioe. Holan, kultur jardueretarako 35.000 euro dagoz; igaz baino 8.000 euro gehiago. "Aurreko urteetan hartutako konpromisoak herriko alkarteakaz eta hainbat eragilegaz mantendu lortu dogu. Alkarteek lan handia egiten dabe herrian ekintzak antolatuten eta hori balioan ipini gura dogu. 2025ean Danborradak 50 urte beteko ditu eta Areatzako Erraldoiak barritzatzen hasiko gara".

EAJk kontrako botoa

EAJ-PNVk kontrako botoa emon eban "aurrekontuek eta Areatzako errealidadeak talka" egiten dabelakoan. "Andrak, gazteak, migranteak eta edadeko jentea ikusezinak dira aurrekontu honeetan. Egoereari bueltea emoteko Gobernu Batzordea barriro sortzea proponidu dogu baina ez da onartu eta Areatzak jarraituko dau gobernu bertikala eta ez laguntzailea eta parte hartzailea izaten" dino Josu Basozabal EAJ-PNVko zinegotziak. "Kultura arloan, ikuskizunak kontratatetako dinamikeagaz jarraituten da, ikusleak bilatzeko helburuagaz. Gastua handitzen dauan politika populistea iruditzen jaku, kultur hazkunde bakoa" gehitu dau.



ARRATIA, ZEBERIO

Agate Deunaren koplak eta makila hotsek beteko ditue Arratiako bazterrak

Ondo errotutako tradizioa da gurean Agate Deunaren bezperan, makilak eskuan jente talde bat batu, eta Kataniako martiriaren omenezko koplak kantetan auzoz auzo ibiltea. Aurten be ez dira gitxi izango Arratia eta Zeberion, zezeilaren 4an, auzoz auzo edo kalez kale ibiliko diran koruak.

Koruen artean ezagunena Arratiako Korua da. Urtero legez, aurten 74garrenez, Arratiako herrietan eta Bilbon kantauko ditue koplak. Herri batzuetan herriko jentea be batuko jakie, baina horretaz aparte beste hitzordu batzuk be izango ditue, asko dira-ta eskolaumeak, gazte taldeak, alkarteak, kuadrillak edota auzokideak, makila eskuan eske errondan ibiliko diranak.

Erredakzioa

Arantzazukoak 19:00etan batuko dira herriko plazan, ensaio txiki bat egin eta heritik kantetan hasiteko. Plazan, Oilakorben, eleiza parean eta Montero tabernan kantau ostean, Herriko Tabernan amaituko dabe kantuen ostean, mokadutxo bat janez.

Artean, Kokomarroak, Ahots guraso alkarteak eta Mikel Deuna jubiladu alkarteak antolatuta, 16:00etan batuko dira eskolan eta Agate Deunaren koplak eskolan eta plazan kantau ostean, San Martinera joango dira ermitako kanpaia jo eta tostadak jatera. Ostean jarraituko deusie eske errondeari plazan, tabernaz taberna.

Bedian, 17:00etan batuko dira herritarraz plazan auzorik auzo joateko koplak kantetan.

Igorren, 15:00etan San Antonio ermitan batuko dira auzoetatik errondea egiteko.

Areatzan, Diman, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion eskolaumeek eta hainbat auzotako koruek beteko dabez kaleak eta baserri inguruak kantuz eta makila hotsez.

Zeanurin harago doa jaja. Koru ugari dagoz; auzo askotan eta batzuk oso antxinakoak, baina

gainera, bezperan bakarrik ez, egunean bertan eta hurrengo domekan be ospakizunak egoten dira Santa Ageda ermitearen inguruan. Oso ezagunak dira, han kantetan diran Agedaren bizitza eta martirioa kontetan daben koplak.

Arratiako Korua

Garazi Navasen zuzendaritzapean, egingo dau Arratiako Koruak bere urteroko ibilbidea Arratiatik eta Arratiatik kanpo. Koplak kantetan batutako dirua Caritasentzat izango da. Aurreikusitako ibilbidearen arabera, partaideek 07:30ean hartuko dabe autobusa Igorren Areatzara joan eta hango parrokan mezea entzuteko 07:45ean. 08:15ean izango dabe urtekerea; 08:25ean, Zeanurin kantauko dabe; 08:40an, Arantzazun; 09:00etan, Igorren; 09:20an, Diman; 09:40an, Lemoan; 09:55ean, Bedian; 10:15ean, Usansolon eta Zorrontzan 10:45ean kantauko dabe. Ostean, 11:05ean, barriro be autobusa hartu eta Bilbora abiatuko dira. Han, 11:30ean, kantauko dabe

Begoñako Basilikan kantau eta ostean Bilboko errondeari ekingo deusie: 12:00etan, San

Antonen eta Erribera merkaduan izango dira euren koplak eta makilakaz; 13:00etan, Arenalean eta 13:15ean, udaletxean kantauko dabe. 13:45ean, Ibaiganen; 14:10ean, Bizkaiko Foru Aldundian, 14:30ean, Carlton hotelean; 14:45ean, Botikazar Institutuan; eta 15:05ean, Guggenheim museoan izango dira kantuan. Gero, 15:20an, bazkalduteko etenaldia egingo dabe.

Bazkalostean Bilboko ibilbideari ekingo deusie barriro, 17:00etan, Abando hotelean, Epategietan, Jado Plazan, Egileor Plazan, La Viñan, Kutxabanken, BBVAN, El Corte Inglesen, Laboral Kutxan eta Ledesman entzun ahal izango dira Arratiako Koruaren koplak. Ostean, 19:00etan, metroan, Plaza Barrian, eta Donibane plazaxoan. 19:30ean, Santiago katedralean eskainiko dabe emonalditxoa eta 20:15ean, Arriaga aurrean agurra egingo deusie Bilbori.

Arratiarantzako autobusa 20:30ean hartuko dabe, baina geldiunetxo bat egingo dabe Galdakaon 20:50ean. Artean 21:20an egongo da korua eta 21:30ean Areatzan egunari amaiera emoteko atzenengo kantaldia egingo dabe Gudarien Plazan.



MALU EGILUZ

Zisjordaniako erresistentziaren lekukotasuna ekarri dabe Malu Egiluzek eta LVCko Europako ordezkariak

Zisjordanian izan zan Malu Egiluz, La Via Campesinako (LVC) ordezkari batzuek, Palestinako Nekazaritzako Lan Batzordeen Batasunak konbidautu. Igazko abenduan 10 egunez izan zan han. Bisita honen helburua, Gazako genozidioa eta Zisjordaniako desplazamentu sistematikoaren aurrean palestinar herriari alkartasuna adierazotea zan, baita han indarrean dagozan apartheid politikak dokumentatzea be.

Erredakzioa

Naplusa, Jordan bailara, Ramalah, Belen eta Hebronon egon ziran, eta nekazari palestinarrek, gobernadoreak eta gizarte zibileko erakundeetako ordezkariak bildu ziran eta ikusi eben etxebizitzak botateko, lurra konfisketako eta ura eskuratzeko murrizketak ezartzeko politika sistematikoek, Palestinako nekazarien eta landa komunitateen bizibideak suntsitu dituela. Palestinar nekazarien erresistentziaren eta euren lurretan geratzeko asmo sendoaren lekuko be izan ziran hamarkadetako indarkeria eta desplazamentuei aurre eginez.

Zisjordanian, La Via Campesinako Europako kideak egon zaria, ezta?

Bai, 9 lagun joan ginan. LVCk han erakunde bat dauka eta Gazako genozidioaren aurrean, pentsau eben mundu mailako alkartasuna adierazoten joan behar zala hara. Baina herrialde batzuetan ezin ziran bisadoak lortu eta, danon izenean, Europatik joatea ebatzi zan. Guri EHNE Bizkaia moduan be eskatu euskuen joateko.

Zisjordanian sartzea ez zan erraza izango. Zelan joan zan bidaia?

Egoera ikusita, hilebete batzuk aurrerago prestatu genduzan egingo euskuezan galderen erantzunak. Turista moduan joan ginan baina inor ez da hara turismoa egitera joaten, hori dana amaituta dago. Hango erakundeagaz landu genduzan jokaerea. Esaten euskuen egoera ez zala erraza, gauzak asko gogortu zirala eta frontieretan arazoak egon ahal zirala. Frontieretako kontrolatan



galdetzen ebena prestatuta joan ginan.

Tel Aviv-etik edo Jordaniatik sartu ginan. Gu Jordaniatik joan ginan, talde moduan, turismo egiten egongo bagina lez, baktaxa gure aldetik. Jordaniatik sartu ginanok ez genduzan izan arazorik. Tel Aviv-etik sartu ziranak apur bat gogortxoagoa izan eben, galderak, zergaitik gura eben sartzea... Presinopean.

Galderak prestatuta eroan genduzan eta bagenkian be aktibista eta erakunde palestinar guztiak kriminalizauta dagozala terrorista moduan. Orduan, ez genduzan eroan behar ezer adierazoten ebana Palestinaren alde gagozala, ezta nora ginoiazan. Hori prestatuta eroan behar zan, turista moduan sartzeako.

"Galderak prestatuta eroan genduzan eta bagenkian be aktibista eta erakunde palestinar guztiak kriminalizauta dagozala terrorista moduan"

Zer ikusi zenduen han? Zein da egoera?

Gu kasualitatez oin dala 10 urte be izan ginan han, 2014an. Orduan be Gaza bonbardeau eben, eta ezetu genduzan Zisjordania. Leku batzuetara ez ginan joan ze orduan Gazara joan ginan taldeko batzuk.

2023ko urri bigarrenaren 7tik aurrera gauzak gogortu egin dira. Oin 10 urte be baegoan lurra kentzea, nekazari ez ixtea euren lurretara joatea... Hori baegoan, ze hori estrategia bat da dagoana palestinarrek herrialde horretatik kanpora aterateko. 1948an hasitako estrategia da eta martxan dago. Mapetan ikusten da gaur egun palestinarren lurra, mapan, txanpinoi batzuk moduan agertzen da: Palestina izandako-

tik Gaza eta Zisjordaniako toki batzuk dagoz. Gero eta lurralde gitxiago daukie.

Urri bigarrenaren 7tik Zisjordanian, 5.000 Ha lur palestinar konfiskatu deutseez eta zirkulaziora mugatzen daben ia 900 ate ipini dabez. Ikusi dogu hori, zelan kendu deutseezan lurra; zelan olibondoak ebagi deutseezan, hesiz bete dabez herriak, auzoak, uriak... Kartzela baten bizi dira euren herritxoetan. Ateak zarratuta badagoz ezin dira urten; auzo batetik bestera ezin dira joan. Apartheid-a da.

Gauean kolonoak bajatuten dira herrietara edo urietara, ejerzitoagaz babestuta eta jentea hiltzen dabe eta istiluak sortzean ditue. Gura dabe jentea botatea, baina palestinarrek erresistentzia handia egiten deutseez, euren lurra defendiduten dabe.

Ikusten da Gazan zer pasetan dan: hor dagozala, nahiz eta bonbardeoak egon.

Zisjordanian badago bonbardaketarik?

Gaur (urtailak 22) irratan entzun dot Netanyahu esan daua la Gazan besteko bonbardaketak egingo dituala Zisjordanian be. Jentea kezkatuta egoan Trumpek poderera heldutakoan gertatuko zanagaz be.

Netanyahu adierazo dau Zisjordania bonbardetan hasiko dala. Bart sartu zan Yeninen eta 10 hildako eta 40 bat zauritu dagoz. Gero eta bortitzagoak dira erasoak.

Ez da espero Gazako su-etekinak gauzak konpondutea?

Zisjordanian erasoak estrategiko ki bestelakoak dira: lurra kendu, gauero joan komunitateetara... Beduinoak esaterako, herrialde



Artzai beduino bat.



Olibondoak moztuta eta argazkiaren atzekaldean kolono herria.

"LVCK Israelgo legez kanpoko kokalekuetako nekazaritza produktuei boikota egitea, eta okupazinoa babesten dauan edozein akordio baztertzea eskatuten dau"

nomada hori, eraso handiak dabil sufriduten. Ikusi genduzan errepi-de bazterretan, euren espazioak guztiz suntsituta. Familia beduino bategaz egon ginan, urri bigarrenaren 7tik aurrera ardiak gordeta izan behar ditue, ezin ditue eroan larreetara eta euren gainean dagoz kolonoak eta dronak kontrolatan. Gu joan ginaneko aurreko gauean, kolonoen bisitea eta eraso izan eben. Eta gu han ikusita, eta drona gainean, andrak urduritu egin ziran eta esan euskuen mesedez alde egiteko, ezpabere gauean barriro agertuko zirala kolonoak.

Egoera oso-oso txarrean dagoz

eta desagertu egingo dira. Ze danak sakabanatuta dagoz eta ez daukie aukerarik bizimodua aterateko: ezin dabe esnea saldu, animaliei jateko pentsua emon behar deutsee eta horretarako ez dago ekonomiarik. Sano egoera eskasean dagoz.

Erresistentzia horretan badaukie laguntzarik?

Palestinako Nekazaritzako Lan Batzordeen Batasunak (UAWC) nekazariari laguntzen deutse lurrrak berreskuratuz, hazi bankuen bidez eta trebakuntza programen bidez.

Euren hazi bankua oso ona da eta formakuntzetan, defenza guztiak landuten dabez. Palestina osoan dago hori oso ondo landuta, ze eurentzat lurra mantentzea funtsezkoa da. Horretarako da erresistentzia, mantentzeko euren herriak, eta hori lurra da. Oso errotuta dago baserri mundua.

Autoridade Palestinako Nekazaritzako ministroagaz egon ginan eta bildur dira jateko barik gertzeko eta beste estrategia batzuk begiratzen hasi dira. Baina eraso leku guztietatik dator. Erakundeek apenas daukie dirurik eta atzeririk datozan programak behar

dabez proiektuak aurrera aterateko. Baina egoereak okerrera egin dau eta uste dabe laster bankuetako kontuak blokeauko dituela. Egoerea gero eta estuagoa da alde guztietatik: langabezia gero eta handiagoa da, lan prekariadadea be bai, gizonak kartzeletan dagoz eta andra askok lan egin behar izaten dabe israeldarrentzat eta hori oso estresantea da. Dana dago gero eta okerrago.

Badago nazinoarteko mailako planen bat, proiekturen bat, babes emoteko edo?

Nazinoarteko brigadistak egon dira, boluntarioak, nekazarien inguruetan eta horri esker oliba ekoiztu ahal izan dabe.

LVCK mendebaldeko gobernuen isiltasuna eta Israelegaz egindako merkataritza akordioek baimentzen daben konplizidadea txarresten dau. Israelgo legez kanpoko kokalekuetako nekazaritza produktuei boikota egitea, eta okupazinoa babesten dauan edozein akordio baztertzea eskatuten dau. Gobernuak eta giza eskubideen defendatzaileek irimo jokatu behar dabe Israeleri erantzukizuna leporatu eta nekazari eta komunitate palestinarrei alkartasuna adierazoteko.

LVCK alkartasun ekimen barriak egingo ditu, eta estrategiak garatuko ditu palestinar nekazariari lagunduteko askatasun eta duintasunaren aldeko euren burrukan. Euren eskatzen dabena justizia da. Mundu mailako mobimentu sozialek bai laguntzen deutsee. Jentea ez isiltzea eskatzen deuskue, gertatzen ari dan astakeria handi horren aurrean, gu ez isiltzea.

Jordaneko bailaran, konfiskatutako lurretan, mundu guztirako ekoizten dau Israelek eta geure merkaduetan oso sartuta dagoz. Kanpaina bat dago boikot egiteko produktu horreei. Aspaldiko kanpaina da, hamar urte baino gehiago ditu eta ez dira bakarrik nekazal produktuak. Ez da erraza, ze produktuok oso sartuta dagoz gure merkaduetan, baina holango kanpaina bat erabakiorra izan zan Hego Afrikan.



10.
Urteurrena

www.estudioduende.com ● MARTIN ORTEGA | 617 332 691

Diseinu grafikoko estudioa Areatzan.
+ Irudi korporatiboa. + Web-orrialdeak. + Ilustrazioa.





Hotel Balneario

Areatza



**ETORRI ETA ERLAJAU ZAITEZ
AREATZA BAINUETXEAN**

**ZIRKUITU
TERMALAK**

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

EGONALDIAK

HOTELEAN

hotelbalnearioareatza.com

946572705

info@hotelbalnearioareatza.com



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

PELOTEA



Aldai eta Zabala ez dira sailkatu finalurreko ligaxkarako

Emakume Master Cup zirkuituko Eskuz Binakako Txapelketako lehenengo ligaxkan, hiru partidutik bakarria irabazi dabe Amaia Aldai eta Irati Zabalak eta finalurrekoak ebazteko ligaxkatik kanpo geratu dira.

Erredakzioa

Atzen partidua Amezketan jokatu eban Aldaik Bertizegaz urtailaren 26an, eta 21-22 galdu eban, Zabaleta eta Osesen kontra. Ligaxkan bikote izan dauan Irati Zabalak ezin izan eban jokatu partidu hau eta bere ordeaz, Bertizek jokatu eban. Baina Goiuri Zabaleta eta Uxue Osese irabazi eban minimoagaitik. Holan, ligaxka fasean hirutik partidu bakarria irabazi dabenez (17-22, 22-14 eta 21-22), hurrengo faserako txartela galdu eban bikoteak.

Aldai-Bertiz eta Zabaleta-Oses

bikoteen kontrako partidua lehia estu-estuagaz jokatu zan, atzen momentura arte egon zan ebazti barik aurrez aurrekoa. Partidu hasikeran, Aldai eta Bertiz nagusi ziran eta aurretik 9-0 be ipini ziran. Baina leitzarrak eta oñatiarrak ez eban amorerik emon eta jokoan gitxika-gitxika sartu ziran, markagailua orekatu eta aurrea hartu arte. 21-17ko markagailuagaz partidua irabazita eukiela emoten ebanean, Aldai eta Bertiz barriro ipini ziran martxan eta bardinketea lortu eban eta atzanean, Zabaletak eta Osese eroan eban atzen tantua.

FUTBOLA

Ez dabe garaipenik lortu talde arratiarrek hilaren lehen astegoienean



Andrazkoen Arratia A taldea Urbietan jokaturako atzen partiduan.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia Ak eta Bk etxean, eta gizonezkoen Arratia Bk etetik kanpo, bardindu egin ebezan euren partidua. Gizonezkoen Arratia Ak etxean eta Lemoako Harrobik etetik kanpo galdu egin eban ostera.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 1ean jokatu eban Urbietan Bilbao Artizarrak taldearen kontra eta bana bardindu eban. Aukera itzela galdu eban bigarren postuan kokatzeko, bardinketa honegaz laugarren postura jatsi da Arratia. Aurkariak aurreratu ziran 22. minutuan areaz kanpo jaurtitako faltea eskuadratik sartuta. Lehen zati eskasa jokatu eban arratiarrek. Nerea Izagirrek sartu eban bardinketearen gola 60. minutuan. Bigarren zatian askoz hobeto ibili zan etxeko taldea eta irabaztea merezidu izan eban,

baina bardinketeagaz konformau behar izan ziran. 18 jardunaldiren ostean 37 puntu ditu Arratia Ak eta laugarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 8an jokatu dau etetik kanpo puntu batera, hirugarren postuan, daukan Bizkerre taldearen kontra, arrastiko 16:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 2an jokatu eban Urbietan Balmaseda taldearen kontra eta bana bardindu eban. Arratiarrek 0-2 galtzean heldu ziran atsedendira, bigarren zatian ostera Uxue Aurtenetxek eta Miren Gordok sartu ebezan arratiarren golak, atzen minutuetan partiduari buelta emoteko aukerea izan eban Arratia Bk, baina penalti bat hutsegina eban. 15 jardunaldiren ostean 25 puntu ditu Arratia Bk eta bosgarren postuan dago. Datorren partidua etetik kanpo jokatu dau hilaren 8-9ko astegoienean

liderra dan Peña Ath Santurtzi A taldearen kontra.

Gizonezkoen Arratia A taldeak hilaren 1ean jokatu eban Urbietan Astrabuduako taldearen kontra eta 2-3 galdu eban. 0-1 eta 1-2 galtzean hasi arren atsedendira bina heldu ziran, baina bigarren zatiko 64. minutuan sartu eban aurkariak garaipenaren gola. 19 jardunaldiren ostean 30 puntu ditu Arratia Ak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 8an jokatu dau etetik kanpo Abadiño A taldearen kontra, arrastiko 18:15ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 1ean jokatu eban etetik kanpo Gernika B taldearen kontra eta bana bardindu eban. Golak bigarren zatian heldu ziran, arratiarrek aurreratu ziran markagailuan 72. minutuan Asier Aranaren gol bateri esker, baina gernikarrek 3 minutu beranduago bardindu eban partidua penaltiz. 19 jardunaldiren ostean 24 puntu ditu Arratia Bk eta hamargarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 8-9ko astegoienean jokatu dau Urbietan Begoña A taldearen kontra.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik hilaren 2an jokatu eban etetik kanpo Begoña A taldearen kontra eta 4-0 galdu eban. 19 jardunaldiren ostean 19 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamahirugarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 8an jokatu dau Arlonagusian San Miguel A taldearen kontra, arrastiko 17:45ean.

Matrikulazino epea zabalik hilaren 14ra arte

Dirreazio larri lasterkoan

Gure
irastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



MENDIA

Kolazino Mendi Eguneko lasterketak ia beteta dagoz daborduko

Martiaren 15ean Bedia jokatuko diran Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako eta mendi martxarako zabalik dago izen-emotea sportmaniacs plataforman.

Erredakzioa

Hiru lasterketa dira: nagusia 24 km-koa; 16 km-koa eta umeentzako, 3 km-koa. Martxeak 16 km-ko ibilbidea dauka.

Izen-emotea martiaren 10era arteko epea eban arren, ia beteta dagoz lasterketak eta dorsalak amaitutakoan ezin izango da izenik emon. "Guztira 600 parte hartzaileentzako lekua dago eta 550ak pasau doguz" azaldu deutso BEGIturi Jokin Zabala antolakuntzakoak.

Lasterketak

Aurten, lasterketen noranzkoa aldatu egin da eta ibilbidea aurreko urteetako izan arren, beste aldera

egingo da. Beste nobedade bat da umeek euren eguna eukiko dabela eta lasterketea hurrengo egunean, domekan, 11:00etan izango dala. Edadearen araberrako ibilbide desbardinak izango dabez.

Zapatuan, martiak 15, izango dira beste hiru probak. Lehenengoak urteten, 08:30ean, martxalariak izango dira 16 km eta 900 metroko desnibela daukan ibilbidea egiteko. Lasterketa nagusiko lasterkariak barriz, 10:00etan abiatuko dira 24 km eta 1.600 m-ko desnibela daukan lasterketea egiteko. Azkenik, 11:30ean urtengo dira 16 km-ko lasterketea egingo dabena.



ERRUGBIA

Gernikan eta Euskal Selekzinoan dabiz anratiar zekor gazteak



Ekhi Zuluaga eta Aner Gorostiaga.

Aner Gorostiaga hamazazpi urteko arantzazuztarra eta Ekhi Zuluaga hamabost urteko igorretarra Arratiko Zekorrak taldeko errugbi jokalaria dira. Halanda be, ez dago euren kategorian Arratian jokatu teko aukerarik, beraz, Gernika Rugby Taldeagaz jokatu ten dabe.

Erredakzioa

"Jentea falta da, hori da arrazoi bakarra", dino Gorostiagak. Biek gurako eben bertan jokatu ahal izatea, beraz Zuluagak arratiar gazteria errugbia probetera animau gura izan dau: urteak egin ahala gero eta gitxiago gagoz eta jentea behar da, kirol ona da eta jentea probetan animau gura dot".

Egoera holan, biek entrenetan dabe San Txismen Arratiko Zekorrren nagusien taldeagaz martitzen eta eguenetan baina barikue-

tan, Gernikan entrenetan dabe, astegoienetako partiduetarako prest egoteko. Zuluaga 16 urtez azpiko taldean dago, kategoriako B mailan, eta ligea ondo joako: "Lehenengo bueltea ia amaituta, lehenengo goaz sailkapenean". Gorostiaga barriz, 18 urtez azpiko taldean dago eta honen taldea be, sano ondo doa bere kategoriako B mailan: "Lehenengoak gara dana irabazita, ondo gabiz".

Euskal Selekzinoan

Gazte biak be, Euskal Selekzinoaren talde gazteen parte dira.

Gorostiagak hiru urte daroaz eta oin 18 urtez azpiko taldean dago. Zuluagarentzako barriz hau da bere lehen urtea 16 urtez azpiko taldean baina sorbaldea minduta, ezin izan dau guztiz aprobe txau aukerea. Gorostiagak azaldu dauanez, selekzinoko ikuskariak bideoak ikusi eta jokalarien gainean galdetuten dabe taldekide barriak topetako: "Hortik entrenetara deitu eta gustau ezker hartzean zaitue". CESA Espainiako liga autonomikoan lehiatuten dira baina ez doaz lar ondo, atzenurenak dira talde biak.

ONEWALL

Euro1Wall Dutch Onewall Txapelketea irabazi dau Lur Ziarrustak

Erredakzioa


Urtilaren 25 eta 26ko astegoienean jokatu zan Euro1Wall Dutch Txapelketea eta Lur Ziarrusta pelotari dimoztarrak irabazi eban A mailan Banakako txapela, finala Noah Daubechies belgiarrari 2-0 irabazi ostein. Mikel Beldarrain arteztarrak be jokatu eban Europako txapelketa hori eta banaka, zein binaka, Ziarrustagaz batera, lehen mailako (A maila) finalerdietara heldutea lortu eban.

Ez da lehenengo aldia izan Herbeheretako irekiko txapela irabazten dauala Ziarrustak, 2023an be irabazi eban-ta. "Ez

da lehenengo, azkena izango ez dan moduan" dino pelotari dimoztarrak sare sozialetan. "Jokatutako txapelketea onena izan ez arren, kantxan terko mantenu eta behar zana ateraten jakiteagaz geratzen naz" dino eta bere aukaria zoriondu egiten dau gero. "Zorionak aukari euki neban belgiar gazteari. Aupa zu, Noah!" dino.

Beldarrainek be irabazi dau inoz txapelketea baina oingoan finalerdietara helduteagaz konformau behar izan da. Sensazio onenak ez zala joan eta kantxan be ez zala gustura sentidu dino sare sozialetan, baina

ondo baloretan dau txapelketea eta pozik agertzen da lortutako emaitzakaz.



JANTZEA

Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak matrikulazino epea zabaldu dau barriri

Erredakzioa

Urtailean, gazteei zuzenduta zabaldu zan barriri 2024-2025 ikasturteko matrikulazino 12 eta 18 urte bitartekoentzat. Epea amaituta egon arren, lehenengo egunean ensaiora agertuten diranek be eukiko dabe taldean sartzeako aukerea. Zezeilaren 6an hasiko dira eskolak eta egue-netan izango dira 17:00etatik 18:00etara Elexalde gelan.

Gaztetxoan taldea egon arren, edade horretako jantzari gitxi egozan. Matrikulazino epea zarratuta egoanean, DBHko gaztetxo batzuek, taldera jo eta jantzan ikasteko eta Dantzari Egunean eta herri mailako jantza ekintzetan parte hartzeako interesa agertu eutseen. Hori dala-

ta, matrikulazino barriri zabal-dutea ebatzi dabe Gazte Barri Dantza Taldean. "Taldea indartu gura dogu. Edade guztietarako izan daitela" azaldu deutso BEGI-turi Amaia Urkiaga taldekoak.

2024-2025 ikasturtean, 4 urteko umeentzako talde bat be ipini dabe martxan. Lehen 5 urte euki behar ziran gitxienez. Holan, 2024-2025 ikasturtean, Haur Hezkuntza (4-5 urte); LH 1-2-3; LH 4-5-6; DBHtik gorakoak (12-18 urte) eta Helduen taldeak dagoz. Baita, Arratiako jotea eta arin-arina jantzatzeako taldea be. Guztira, 46 lagun.

Gazte Barri Dantza Taldea Diman sortu zan euskal folklorea sustatzeko eta sasoiari sasoiokari egokituta, jarraituten dau euskal jantzak erakusteko ekinean.

MUSIKEA

Kontzertua eskainiko dau Pettik Arteako Herriko Bentan hilaren 16an

Erredakzioa

Juan Luis Perez Mitxelena, Petti, abeslari nafar ezagunak kontzertua eskainiko dau zezeilaren 16an, 13:30ean Arteako Herriko Bentan. Arratian -Igorren eta Diman- kontzertuak emon dituan arren, lehenengo aldia da Arteara datorrela.

Berako musikariak bluesa, folka eta rocka nahasten ditu bere musika sano personalean. Pettik 10 bat disko kaleratu ditu bere 25 urteko musika ibilbidean eta, gitarrea hartuta, disko horreetako hainbat kantu joko ditu Artean. Zuzeneko emonaldiez gainera, disko-liburu bat eta estudioko disko bat be prestatzen dabil aurten argitaratzeko.

Badago Pettiren musikea definituterik?

Ez dot uste egokiena nazanik neure burua saltzeako baina bluesa maite dauanak gustura entzuten dau euskeraz egiten dodana. Springsteen, Johnny Cash, Mark Lanegan, Laboa edo Ruper maite badozuz agian gustura entzungo dozu egiten dodana. Gitarrea landuteko modu berezia erabilteko joerea be badaukat afinazino arraroakaz eta kantu melodiko nahiz esperimentalak jorratzea be gustuko dot.

Artean emongo dozu kontzertua. Zerk bultzatu zinduan leku txiki honetan kontzertua emoteari baietz esatera?

Ba Artean ez naz sekula egon baina Arratian eta inguruetan bai: Otxandion, Igorren, Orozkon, Ugaon eta Diman jo izan dot eta beti oso gustura. Artean jotea oso gustura hartu neban proiektu oso ederra eta lagungarria iruditzen jatalako, holango jente gehiago behar da mundu honetan.

Plazerra izango da Artea ezetu eta tartetxo goxo bat pasau ahal izatea hara azaltzen diranakaz.

Zelangoa izango da kontzertua? Zer joko dozu?

Folka, bluesa eta rocka nahasiko dodaz gitarra akustiko baina elektrifikaduagaz, efektu desbardinak sortzean daben pedalen laguntzeagaz. Nere diskoetako kantuez eta bersinoez osotutako erreperitorioa joko dot gitxi gorabehera ordu eta laurdeneko iraupena daukan emonaldian.

25 urte baino gehiago darozuz eszenalekuetan eta 10 disko inguru daukazuz kalean. Urte honeetan guztietan, ze eboluzino izan dabe zure musikeak eta euskal musikagintzeak, orokorrean?

Nire musikeak eboluzino naturala izan dau baina ez da lar nabaria

egiten dodan estiloen aldetik ez dalako larregi aldendu. Azkenean kalidade aldetik argi dago hobetu dala ikasteak zeozertarako balio behar daualako.

Euskal musikari buruz nik gustuko dodan musika asko jatsi da eta gustuko ez dodana igo. Orduan isilik gelditzea hobea. Eta publikoarena inboluzino izan da ez eboluzino.

Zeintzuk dira zure aurtengo plan eta proiektuak?

Zuzeneko disko bat aterako dot udagaioenean, Ana Galarragagaz *Frankenstein agurgarria* disko-liburua aurkezten nabil zuzenean. Balerdi Balerdi taldeagaz be disko barria prestatzen nabil eta estudioko nire hurrengo diskoaren prestatketetan be bai. Honegaz eta emonaldiaz nahikoa oingoz.



GAZTERIA

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan izena emoteko epea zabalik dago

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren edizino barrira ipini dau abian. Gazteria Zuzendaritzak eta eLankidetzak bultzatutako programa honen helburua da gazteak hegoaldeko herrialdeetako lankidetzak ekintzetan sensibilizetea eta, modu horretan, euskal gazteen artean herrien eta kulturen arteko alkartasun kulturea sustatzea.

Programa beteranoa da, lehenengo edizino 1993an egin zan, eta Euskadiko ehun bat gazteri gure mugetatik kanpora lankidetzak lanak egiteko aukerea emoten deutse. Izena emoteko epea zezeilaren 17ra arte egongo da zabalik.

Eskaerak online egin behar dira www.gazteukera.euskadi.eus/euskadiko-gazteak-lankidetzan/hasiara webgunean, eta bertan kon-sultau daiteke erabilgarri dagoan

informazino guztia.

Programa 22 eta 30 urte bitarteko personei zuzenduta dago, eta aukeratzen dabezanez lankidetzak ekintzak egin ahal izango dabez Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak datorren udako hiru hilebetetan zehar eta Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetan garapenerako lankidetzako ekintzetan zuzenean parte hartzea. Ekintza horreen garapena *in situ* ezetuteko aukera emoteen deutsee.



Jaurlaritzak hautatutakoen bidaia gastuak eta, hala bagegoko, helmugako herrialdean sartzeako bisauaren gastuak ordainduko ditu.

Igazko udan 67 gaztek parte hartu eben programa honetan, Amerikako eta Afrikako bederatz

herrialdeetako 22 proiektutan lankidetzak ekintzak eginaz: Hondurasen, Perun, Ekuadorren, Mexikon, Guatemala, Bolivian, Kolonbian, Ginea Konakryn eta Etiopian. Programa honen historian 2.500 gaztek baino gehiagok parte hartu dabe 100 GGKEgaz baino gehiagogaz.

LITERATUREA

Nagusientzako Irakurleen Txokoaren eta umeentzako Irakurketa Klubaren saio bana egongo da Artean



Iñaki Petxarroman.

Erredakzinoa

Arteako Udalak irakurzaletasuna bultzatu gura dau edade guztietako arteaztarren artean. Horren adierazgarri dira Irakurleen Txokoa eta familientzako Irakurketa Kluba.

Ikasturte osoan, hilean behin batzuan dira Irakurleen Txokoko partaideak, Alaine Agirre idazlearen gidaritzapean libururen bat

komentetako. Datorren saioan, zezeilaren 7an, Iñaki Petxarromanen *Lehendakariaren alaba* (Elkar, 2024) eleberria izango dabe berbagai. *Thriller* distopiko hau Euskal Herrian 2026 eta 2040 bitartean dago girotuta. "EH Bildu Gasteizko Jaurlaritzan, gero barriro ilegalizauta eta bere lehendakaria Baionan erbesterratu; Ayuso eta Abascal Espainiako Gobernuan, euri faltearen

ondorioz ura negozio pribadu bihurtua, bero itzelaren eraginez ehunka mila migratzaile peninsulatik euskal kostaldera; gazte asko, egoera etsigarri horri aurre egin guran, ETA Berri izeneko erakundearen sartuta sabotajeak eta bestelako ekintzak burutzeko...". Elementu honek osotuten dabe nobela honen korapiloa.

Familientzako Irakurketa Kluba

Umeak irakurten zaletuteko, 6 eta 8 urte bitarteko umeen familientzako Irakurketa Kluba antolatu dau Udalak. Hiru saio antolatu ditue: zezeilaren 12an, martiaren 12an eta aprilaren 29an, hain zuzen be, 17:30ean, liburutegian.

Umeak nagusi bategaz joan behar dira saioetara. "Irakurketa sustatzeko ekimena da. Bertan gurasoek, euren seme-alabak batera, partekatuko ditue irakurketa momentu batzuk. Saioetan, umeek, guraso edota hezitzaileak batera hartu daikie parte" azaldu dabe Udaletik.

ZINEKLUBA

La boda de Tuya film txinatarra Igorreko Zineklubean

Erredakzinoa

Hilaren 12an, eguaztena, 20:00etan, izango dau zinekluba hurrengo saioa. Oingoan, Wang Qu'an zuzendariaren *La boda de Tuya* (2006) filma egongo da ikusgai.

Berlingo Zinemaldian pelikularik onenaren saria jaso eban.

Sinopsia

Mongolian, Tuya andra gaztea bere patua aldatzeko burrukan bizi da: senarra, elbarrituta dago eta seme-alaba bi eta artaldea aurrera atera guran dabil. Artzain

mongoliarrek euren betiko bizi-modu nomada bertan behera itxi dagien, gobernuak egiten dauan presinoa gero eta handiagoa da. Tuyak, bere animaliak eta familia zaintzen ditu eta larreak ixteari uko egin deutso, baina ahalegin luzeak ondorioak izan ditu eta gaixotu egin da. Urtenbide bakarra Ba Te Er senarrarengandik dibortziatzea da, eta barriro ezkontzea aurrera egin ahal izateko. Ez dira gitxi ezkongaiak, baina inork ez dau onartu gura Tuyak ipinten dauan baldintzea: bere seme-alabak eta, batez be, Ba Te Er senarra zaintzea eskatzen dau-ta.



DUNBA

Gure eskola barria

Gure eskola barriaren lehen urteurrena ospatzeko izan doguzan aldaketak zuokaz partekatu gura doguz.

Areatzako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Aupa Arratia! 2025eko urtailaren 17an, Areatzako eskolako inaugurazio urteurrena izan zan, eta horregaitik gure eskolan egon diran aldaketen inguruan berba egingo deusuegu.

Momentuko Lehendakaria eta Hezkuntza Sailburua etorri ziran inaugurazioa egitera egun horretan ikasle batzuk abesti batzuk eskaini ebezan.

Eskolea oin handiagoa da, eraikin bi daukaguz baten orde. Eskolako hormak margoztu dira, Haur Hezkuntzak eraikin barria dauka, gimnasio barria daukagu eta patioa handiago eta berdeagoa da. Jantoki barria be daukagu baina aldaketa handiena

da oin jantokiko janaria eskolan sukaldatzen dauala Jon sukaldariak eta lehen prestatuta ekarten euskuela.

Zemendiaren 23an Areatzan Mundua Areatzan jaialdia ospatu zan. Bertan gure eskolan dagozan hizkuntzen zugatzaren aurkezpena egin zan eta oin zugatz hori gure patioan landatuta dago.

Zemendiaren 25erako musikako irakasleagaz Izaroren *Libre* abestia ikasi genduan zeinu hizkuntzan, eta kalean egin genduan grabaketea bideoklip bat grabetako. Oso polita geratu zan eta gure gimnasio barrian egin genduan estreinaldia.

Eskolea barritzut danetik, espazio barriak daukaguzanez bariku arrastietan tailerrak egiten doguz: sukaldaritzea, informatika,



eraikuntzak, soloa, marrazkigintza eta gorputz adierazpena.

Eraikuntzan eskolak behar dituan gauzak sortzean gabiliz eta



egurrezko zugatz bat egin genduan eskolako sarrera barrian ipinteko eta ziklo bakotzak apaingarriak sortu ebezan. Oso polita geratu zan. Gimnasio barria gure topagunea bihurtu da eta jaialdi guztiak bertan egiten doguz, eta zelan ez! Olentzero eta Mari Domingiri harrerea bertan egin geuntsen, *Ole-Olentzero* abestia zeinu hizkuntzan interpretatuz.

Aldaketa asko izan doguz eta oso gustura gagoz gure eskola barrian.

Espero dogu Areatzako eskola bisitetea! Konbidautu zagozie!
Aupa Arratia!

AGENDEA

**ZEZEILAK 3
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 13ra arte emon daiteke izena 15ean izango dan Zuhaitz Egunean parte hartzeako <https://labur.eus/ZuhaitzEguna2025> estekako formularioa betez.

ARRATIA

Arratiako Berbalagun-en parte hartzeako, izena *emanizena.praktikatu.eus* webgunean, 662 199 033 whatsappean, *arratia_berba@ae.eus* helbidean edo Igorreko Kubulu euskaltegian emon daiteke.

Arratiako Koruak zezeilaren 4an dirua batzeako jentea behar dau. Prest egon ezkeru deitu 606 276 467 telefonora.

ARTEA

Zezeilaren 7a baino lehenago, 6 eta 8 urte bitarteko umeen familientzat Irakurketa Kluberako izena emon udaletxean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Izen emotea zabalik martiaren 15ean jokatuko dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako (24 km eta 16 km), mendi martxarako (16 km) eta umeen lasterketarako (3 km) Kolazino Mendi Egunaren webgunean.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Publikoari arretea: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikueta 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Maiatzaren 1era arte edo dorsalak amaitu arte, maiatzaren 31n jokatuko da Ubide Trail 2025ean izen-emotea kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik

barikura liburutegia zabalik.

**ZEZEILAK 4
ARANTZAZU**

08:40an, Arratiako Korua plazan.

19:00etan, Agate Deunaren koplak ensaioa plazan eta ostean abestu Oilakorben, eleiza parean, Montero tabernan eta Herriko Tabernan. Ostean, kopaua.

AREATZA

09:30etan, Arratiako Korua plazan.

ARTEA

16:00etan, Kokomarroak, Ahots guraso alkarteak eta Mikel Deuna jubiladu alkarteak antolatuta, Agate Deunaren koplak kantau eskolan; 16:30etan, plazan; 17:00etan, San Martinen tostadak guraso alkartearen eskutik; 18:30etan, koplaka plazan tabernaz taberna.

21:20an, Arratiako Korua plazan.

BEDIA

09:55etan, Arratiako Korua plazan.

17:00etan, plazan batu auzorik auzo Agate Deunaren koplak kantetan joateko.

DIMA

09:20an, Arratiako Korua plazan.

IGORRE

09:00etan, Arratiako Korua eskoletan.

LEMOA

09:40an, Arratiako Korua udaletxeko plazan.

ZEANURI

08:25etan, Arratiako Korua plazan.

**ZEZEILAK 5
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 10era arte, Ganguren Mendi Taldeak antolatutako martiaren 7tik 9ra Baqueirara eski urtekerarako izen-emotea. Behin izena emoteko epea amaituta, baja emon ezkeru ez da dirua itzuliko.

16:30etik 19:30era, hilaren 14ra arte, martiaren 29an izango dan Dimako Antzasti Euskaldunon Etxera

urtekerarako izen-emotea. Liburutegian. Behin izena emoteko epea amaituta, baja emon ezkeru ez da dirua itzuliko.

16:30etik 19:30era, hilaren 14ra arte, zezeilaren 23an egingo dan Zugatz Egunean parte hartzeako izena emon daiteke liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, Kirol erronkak ekimenean parte hartzeako izen-emotea liburutegian. Erronka zezeilaren 5etik garagarriaren 18ra arte, hiru mendi (Burtotza, San Pedro de Atxarre eta Urkiolagirre) igotea da.

DIMA

18:30etan, Dimastenek eta Urtxintxak antolatuta, aisialdi eredu barriari ekarpenak egiteko batzarra, begirale ikastaroa egiten dabizana edo egin dabenezat. Abaroa Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, meza/ospakizuna eta gero barauskarria Santa Ageda ermitan.

**ZEZEILAK 6
DIMA**

18:30etan, Klima eta Energia plana. Diagnosiaren aurkezpena eta parte hartzeako prozesuaren proposamena. *Zelan eragingo deitso klima aldaketak gure herriari?* Abaroa Aretoan.

**Umeentzako musikaz lagundutako ipuinak Lemoan**

Ana Apika kontalariak *Ipuinak dantzan* ikuskizuna dakar zezeilaren 7an, 18:30etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxera.

Ipuin poetikoak dira, musikeagaz lagunduta. Edo "musika berezia ipuinakaz lagunduta. Ipuin musikatu saio honetan berbek eta notek alkarregaz egingo dabe jantza. Intxixu Valbuena musikariak gitarra elektrikoa jo eta kantu batzuk abestuko ditu eta Ana Apika kontalariak, musikaz lagundutako istorioak kontauko ditu. Entzuteko, abesteko eta, aldi berean, ondo pasetako saio berezia ume eta familientzat" sinopsiaren arabera.

**ZEZEILAK 7
ARTEA**

19:00etan, Irakurleen Txokoa, Iñaki Petxarromanen *Lehendakariaren alaba* Alaine Agirre idazleak bideratuta Kultur Etxean.

IGORRE

18:30etan, Berdintasun Planaren aurkezpena Kultur Etxean.

UBIDE

Podologoa joango da Ubidera. Izena emon behar da aurretik udaletxeko orrian.

**ZEZEILAK 8
IGORRE**

Arratiako Ernai gazte erakundeak antolatuta "Arratietik independentziara". 12:00etan, berbaldia: *Euskeraz biziko garen Arratie* Izar Zubiaga eta Urko Urrutikoetxeagaz; 13:30etan, mural margoketea; 15:00etan, bertso-bazkaria: Arratiako bertsolari gazteak; 18:00etan, Kartel Pegada Txapelketea eta 21:00etan, kontzertuak Nekhtar eta Aiert taldeakaz eta Mj Izarren Ahuntza. Axular Herriko Tabernan.

**ZEBERIO**

10:30etik 13:30era, *Fruta-arbolen landaketa, eraketa eta inausketa* ikastaroa. Teoria eta praktika landuko da. Hogarrean.

**ZEZEILAK 9
IGORRE**

17:00etan, zinea, *Vaiana 2*; 19:30etan, *Cónclave* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, Santa Agedako kofradiak antolatuta, meza eta barauskarria Santa Ageda ermitan, herriko txistulariek girotuta.

**ZEZEILAK 10
BEDIA**

Hilaren 28ra arte, Poema bat askatu ekintzan parte hartzeako poema aurkezteko epea zabalik liburutegian.

Martiaren 28ra arte, Euskaraldiaren 4. ediziorako izen-emotea liburutegian edo www.euskaraldia.eus webgunean.

**ZEZEILAK 11
AREATZA**

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

**ZEZEILAK 12
ARTEA**

17:30etan, 6-8 urte bitarteko umeen

familientzako Irakurketa Kluba liburutegian.

IGORRE

20:00etan, zinekluba, *La boda de Tuya* filma.

**ZEZEILAK 13
ARTEA**

18:00etan, Mikel Deuna jubiladuen alkartearen batzar orokorra Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 14
ZEANURI**

18:00etan, Euskera Planaren aurkezpena Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 15
AREATZA**

Zuhaitz Eguna. 10:00etan, eleiza aurrean alkartu Makalara joateko zugatzak landatutera. Ostean, hamaiketakoa.

IGORRE

18:00etan, *Grabatu* tailerra Axular Herriko Tabernan Izaro Mazogaz.

**ZEZEILAK 16
ARTEA**

13:30etan, Pettiren kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *¿Quien es quien?*; 19:30etan, *A Real Pain* Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00etan, Ganzabal Mendi Taldearen arteak Otzaurte-Arantzazuko santutegia. 08:10etan, Igorren. Aizkorri (1.523 m)-Aketegi (1.551m)-Artzanburu (1.365 m). Luzereara: 17,64 km.

ZEANURI

San Balendin jaia Eleizondo auzoan. 11:00etan eta 11:30etan, kanpaiak eskuz jo eta kanpantorrera igoteko aukerea egongo da; 11:30etan, meza; ostean, San Balendinen irudia Piedadeko ermitara prozesinoan eroan; umeen eta Arrikibar jantza taldearen agurra San Balendineri; pamitxen bedeinkapena; 12:15etan, Piedadeko artearen neurketea eta maiordomoari agiri liburua eta ermitako giltzak pasetea eta 12:30etan, barauskarria: urdaia ardaa eta pamitxea, herriko txistulariak eta Arkaitz Estiballesen bertsoak.

**ZEZEILAK 17
IGORRE**

17:30etan, Literatur solasaldia Mikel Pagadiren *Bisita* liburuaren inguruan Kultur Etxean.



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

KAMARA FRIGORIFIKOIA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoira. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

LANA

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeako prest dago. Interesauta egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamenagaz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusn irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingeleseko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

Zeozero saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezua bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako **Dolu bat eta dolu bi** liburuaren ale bana.

Janire Lopez (Igorre)
Iñaki Egileor (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Cónclave** filmarako.

Rikardo Beldarrain (Artea)
Lurdes Ortega (Bedia)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
TEL. 94 631 92 00

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

begitu
eus



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako ballabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2025ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus